

Aristotelesen *Erretorika* Erdi Aroan¹

GUADALUPE LOPETEGI SENPERENA

UPV-EHU

(Aristotle's *Rhetoric* in the Middle Ages)

Abstract

The aim of this paper is to examine the transmission and interpretation of Aristotle's Rhetoric in the Middle Ages. The first sections are devoted to the explanation of the main features of the rhetorical art in the late Antiquity and the early Middle Ages as well as to underlining the influence of the Arabic Scholar tradition and the first translations of Aristotle's works throughout the IX-XII centuries. In the following sections, we enumerate and discuss the most important latin translations and commentaries of Aristotle's Rhetoric. Finally, we draw out some brief conclusions about the considerations of Rhetoric as a book on moral philosophy.

Keywords: *Medieval Rhetoric, Medieval Philosophy, Latin Translations and Commentaries, Scholastic Teaching, Medieval arabic scholar Tradition*

1. Sarrera

Izenburuak adierazten duen bezala, hauxe da artikulu honen helburua: mendebaldeko kultur tradizioan Aristotelesen *Erretorikak* izan zuen transmisio eta hedapenari buruz ideia nagusi batzuk azaltzea. Gauza jakina da, hamahirugarren mendeko korronte eskolastikoari esker, Aristotelesen obra guztiak latinera itzuliak izan zirela, *Erretorika* barne; dena den, azken obra horren interpretazioa nahikoa berezia izan zen Erdi Aroan, garai hartako maisu eta komentariogileek ez baitzuten diskurtsoaren arteari buruzko liburutzat hartu, filosofia moralaz ziharduen obratzat baizik. Izan ere, laugarren mendean hasi eta ia hamabigarren mendera arte ezagutzen ditugun eskola *curriculumak* aztertzen baditugu, garbi antzeman daiteke, arte erretorikoa irakasteko iturrien artean Zizeron nabarmendu zela eredu nagusi eta ia bakar

¹ Lan hau PI 1/UPV 00106.130-H-15915/2004 ikerkuntza proiektuaren barruan burutu dugu. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet *Gogoako* bi txostengile anonimoei.

bezala². Aristotelesen *Erretorika* ez da aipatu ere egiten. Zizeronen nagusitasunaren lekuko ditugu, besteak beste, Boezio, greziar obra filosofiko ugari latinera itzuli zituen VI. mendeko idazle famatua, edo Kasiodoro eta Isidoro entziklopedia egile ezagunak (VI. eta VII. mendeetakoak, hurrenez hurren) edo, zertxobait geroago, IX. mendean, Alkuino, Karlomagnoen gorteko maisu ezaguna³. Boeziok, esate baterako, Platonen eta Aristotelesen obra nagusiak latinera itzultzeko proiektua burutu nahi izan zuen (erabat lortu ez bazuen ere) eta, Goi Erdi Aroko eskoletan, filosofo ospea bereganatu zuen itzulpen lan horri esker, baita *Filosofiaren Kontsolamendua* deituriko obra ezagunagatik ere. *De Differentiis topicis* eta *In topica Ciceronis* deituriko lanetan, Boeziok, dialektika eta erretorikaren arteko konparazioa hizpide hartuta, baieztatzen du, besteak beste, biak, *ars disserendi* dei genezakeen hizkuntz arte edo teknika bakar baten adarrak direla. Gainera, batak eta besteak topiko sistema berdina darabilte arrazonamenduak burutu ahal izateko. Baieztapen horretatik abiatuta, argi dauka Boeziok, topiko erretorikoez hitz egiteko erreferentzi puntu bakarra Zizeron dela eta nahikoa esanguratsua da iritzi hori Boezio bezalako pertsonaia batek ematea. Isidorok ere, *Etimologiae* deritzon obraren egileak, dialektikaz nahiz erretorikaz ari denean, ez du Aristotelesen *Erretorikarik* aipatu ere egiten. Berdin esan beharko genuke Kasiodoro edo Alkuinoz⁴.

Antzinateko iturrien transmisore izan diren aipatu idazleak, erretorikak jasan duen bilakaera eta aldaketen eredu ezagun batzuk baino ez dira. Aristotelesen *Erretorikak* bizi izan dituen gorabeherak ulertu ahal izateko, erretorikak eta literaturak antzinate berantiarretik aurrera izan dituzten berrikuntzak eta joerak gogora ekarri nahi ditut, laburki bada ere.

1.1. Arte erretorikoaren bilakaera antzinate berantiarrean eta Goi Erdi Aroan

Jakina denez, mendebaldeko erromatar inperioaren gainbehera izugarri areagotu zen hirugarren mendeko azken hamarkadetan, eta, atzerritar herrialdeen erasoaldiak etengabeko mehatxu bihurtu zirenez, inperioa militarizatu egin zen. Bestalde, erregimen politiko absolutuak eta enperadore kar

² Tradizio erretorikoaren bilakaera behar bezala ulertu ahal izateko, argigarria da Erretorikaren iturri klasiko eta klasiko ondokoez gain, horiei buruzko iruzkinak, *scholia* eta antzeko testuak aztertzea; arlo horretan bikaina da honako lan hau: Ward, John O., *Ciceronian Rhetoric in Treatise, Scholion and Commentary*, Turnhout, Brepols, 1995. Bestalde, dakidala behintzat, oraindik argitaratzeke dagoen beste hau ere ildo beretik doa: Ward, John O.-Cox, Virginia, *The Rhetoric of Cicero in its medieval commentary*, Leiden.

³ Murphy, James J., «Aristotle's Rhetoric in the Middle Ages», *The Quarterly Journal of Speech*, LII, 1966, p.109.

⁴ Aipatu idazleen obrak honako hauek dira: Kasiodoro, *Institutiones divinarum et saecularum litterarum*, bereziki, ik. Halm, L., *op. cit.*, 495-500, II, 2.1-17; Isidoro, *Etimologiae*, BAC, Madrid, 1982, II, 1-22; Alcuino, *Dialogus de rhetorica et virtutibus*, *Patrologia Latina*, 101.

guak teorikoki behintzat indarrean jarraitu zuten, nahiz inperioaren antolaketa administratiboa erabat aldatuta zegoen, deszentralizazioa medio: Erromaz kanpo, enperadoreek beste hiriburu batzuk bultzatu zituzten eta egoitza inperial edo administratibo bihurtu, hala nola, Ravena, Milan edo Treveris, eta, ekialdean, Bizanzio. Probintziek gainera, geroz eta parte hartze nabarmenagoa izango zuten arlo ekonomiko nahiz kulturean, eta Erromak sinbolizatzen zuen zibilizazio paganoa zaharkituta eta alderatuta gelditzen ari zen heinean, probintzietan sortuko zen ekarpen literario garrantzitsuena.

Lau lerrotan deskribatu dudan ikuspegi orokor horren baitan, esan daiteke antzinateko literatur tradizioak eskolari esker iraun zuela bizirik mendebaldean seigarren mendera arte-edo, nahiz kristau ideologiaren finkapenak kutsu berezia eman zion. Ondorengo bi mendeak, karolingiar garaiko kultur loraldira arte, nahikoa ilunak izan ziren, hala mendebaldean nola ekialdean.

Antzinate berantiarrean, gainbehera nabaria jasan zuten literatura sortzailerak nahiz bestelako jarduera kulturelek, baina, halere, esan behar da arte erretorikoa gramatikarekin batera landu zela eskoletan, inperioa erabat desagertu zen arte. Idatzizko iturri desberdinek ongi ezagutarazten diguten eskola erakunde horren izaerak baldintzatzen ditu, neurri batean bederen, hirugarren mendetik seigarrenera bitartean sortu ziren erretorika liburuen ezaugarriak. Dena den, esan beharra dago, mendebaldeko eskoletan Aristotelesen *Erretorika* ez zela ezaguna eta ekialdekoetan ere ez zutela ia irakurtzen. Laugarren mendetik aurrera mendebaldean eta latinez idatzitako erretorika obrak L. Halmek argitaratutako bilduma batean daude jasota⁵. Autore horiek guztiek darabiltzaten iturrien artean, Zizeron da, zalantzarik gabe, eredu nagusia; dena den, oinarritzat hartzen dituzten iturriak ez dira egun latinista gehienek Zizeronen obra erretoriko esanguratsu eta nagusitzat jotzen dituztenak, hala nola, *De oratore* edo *Orator*, baizik Zizeronek gaztaroan idatzi zuen liburuxka bat, *De Inventione*, eta horrekin batera, Erdi Aroan nahiz errenazimenduan Zizeroni egotzi zitzaion beste obra anonimo bat, *Rhetorica ad Herennium*. Bi obra horiek defini ditzaketen ezaugarri orokorrak hauek dira: laburtasuna, zehaztasuna eta hiztegi teknikoak. Ez dakarte gogoeta teorikorik, ez bada Mario Viktorino erretorika eta filosofia maisuak burutu zuen hausnarketa sakona, Zizeronen *De Inventione* (bereziki sarrerako kapitulua) oinarritzat hartuta. Sarrera horretan Zizeronek bokantzaren eta erretorikaren funtzio publikoa jakinduria edo filosofiarekin lotzen zuen, eta gai horrek bide eman zion, aipatu Viktorinori, arimaren hilezkortasuna, bertute nagusiak, benetako jakinduria eta bokantzari buruz luze jarduteko, neoplatonismoaren ildotik⁶. Baina era horretako iruzkina salbuespen bat da laugarren eta bosgarren mendeeta-

⁵ L. Halm, *Rhetores latini minores*, Frankfurt, 1964.

⁶ Q. Fabius Victorinus, *Explanationum in Rhetoricam Ciceronis*, Halm, L., *op.cit.*,155-304.

ko erretorika arautegi eta iruzkinen artean. Aipatu ezaugarrirei esker, irakurleek erraz jaso eta ikas zitzaizkieten liburu horietan azaldutako arauak.

Bestalde, doktrina erretoriko orokorrak azaltzen zituen edukietatik bi esparru dira antzinate berantiarrean eta Goi Erdi Aroan bereziki landu zirenak: *inventio* deritzona, hau da, gaien eta argudioen aurkikuntzari zegokion atala eta *elocutio* deiturikoa, figura erretorikoak eta, orokorrean, diskurtsoaren alderdi formala, lantzen zituen atala. *Inventio*ren baitan berebiziko garrantzia ematen zaio erretorika liburu guztietan *status* deritzon kontzeptuaren inguruko teoria guztia-ri, non aztertzen baitzen auzi bati epaiketa batean zegokion kategoria juridikoa. Atal horretan lantzen ziren edukiak erabat teknikoak ziren, zuzenbidearekin guztiz lotuak eta sailkapenez nahiz hitz teknikoak beteak. Zergatik nabarmendu zen atal hori erretorika orokorraren eremu zabalean? Arrazoi ugari eman daitezke. Batetik, laugarren mendean, arte erretorikoak aspaldi galdua zuen jatorrian eta, nola ez, Aristotelesen obran ere, berezkoa zuen funtzio politikoa. Egia bada ere erretorikak diskurtso konbentzigarria osatzeko arauak eta eskemak eskaintzen zituela eta diskurtso-eredu nagusiak, jatorrian, diskurtso judiziala eta politikoa izan zirela, hala ere, askatasun politikoa galdu ahala, arautegi erretorikoaren zeregina, eskola arikeretara eta tribunaletara mugatua gelditu zen eta prozesu hori are gehiago indartu zen bigarren mendetik aurrera. Bestalde, zenbait erretorika maisu, diskurtsoaren alderdi formala aztergai zuen *elocutio* izeneko atala ere arautegi erretoriko orokorrarengandik bereizten hasi zen literatur hizkuntzaren ezaugarriak lantzeko teoria bailitzan. Azken joera horrek eragin zuzena du figura erretorikoei buruzko liburuen sorreran, azken horiek erabilgarriak baitziren hitz lauz nahiz neurtitzetan erabilitako hizkuntza landua menperatu ahal izateko. Gainera gogoratu behar da hizkuntza literarioa gramatikariaren zeregina ere bazela jada antzinatean (*enarratio poetarum* zeritzon gramatika maisuak latindar hizkuntza irakasteko erabiltzen zuen metodo pedagogikoari) eta neurri batean, bederen, gramatikariaren eta erretorika maisuaren funtzioak nahasita zeuden. Dena den, figura erretorikoen eta hizkuntz literarioaren arloan ez dugu aurkitzen antzinate berantiarrean gogoeta teoriko eta espekulatiborik: erretorika eta gramatika obra guztiek kutsu erabat praktikoa dute. Gainera, latindar hizkuntzaren ezagupen jatorra galtzen hasia zela kontuan izanik, eta grekoa ere gehiengoarentzat ia ezezaguna zenez, ez da harritzekoa liburu funtzionalak, praktikoak, espekulazio teorikorik gabekoak nagusitu izana. Figura erretorikoen estudioa, bai erretorika maisuaren gidaritzapean, bai gramatikariarenean, latin kultua eta literarioa ulertzeko eta menperatzeko beharrezkoa zen. *Inventio* deritzon erretorikaren atala eta *status* desberdinei buruzko doktrina, hau da, auzi bateko eztabaidagaien inguruko teorizazioa, garrantzitsutzat jotzen zituzten, kontzeptu tekniko zail eta konplexuen erabilera baliagarria zela uste baitzuten argudiatzeko abilezia garatu eta adimena suspertzeko⁷.

⁷ Auzietako eztabaidagai (status) buruzko doktrinaren zabalkundea, argudiatzen ikasteko abilezia eta trebetasunaren garapenarekin lotzen du J. Wardek. Autore horrek dio gainera, doktri-

Horri guztiari gehitu behar diogu kristau pentsamolde eta ideologiaren erabateko finkapena antzinate berantiarreko gizartean, pentsamolde horrek eskaini baitzien garaiko gizon emakumeei balore sistema eta moral berri bat, Biblian eta ekialdeko tradizio judutarrean oinarritua. Hori ere kontuan hartu behar da, nire ustez, Aristotelesen *Erretorika* bezalako obra batek izan zuen oihartzun eskasa ulertu ahal izateko. Aristotelesek *Erretorika* idatzi zuen garaiko testuinguru ideologiko eta politikoa kontuan hartzen badugu, esan dezakegu Aristotelesen asmoa, arrazoiak gidatzen duen pertsuasioa gauzatzea izan zela, hau da, ahal dena eta litekeena frogatzeko lagungarria zen topiko eta argudioen erabilera arrazoitua sustatzea. Horretarako, gizon-emakumeen portaerak aztertzen ditu, horiei buruzko gogoetak eginez. Ukaezina da Aristoteles arlo etikoan eta politikoa mugitzen dela erabat eta bere *Erretorikaren* azken helburua, giza elkarteak zibilizatzeko instrumentu bat definitzea dela, hots, diskurtso eraginkor eta arrazoitua, eragin soziala izango duena eta gizarte askearen funtzionamendua ahalbidetuko duena. Abiapuntua hori izanik, erraz uler daiteke horrelako erretorika batek lekurik ez izatea antzinate berantiarreko gizartean.

Alde batetik, kristautasuna zelako gizarteari oinarri morala eskaintzen zion zutabe ideologikoa, kristau pentsamoldera egokituak izan ziren, bai Aristotelesen *Erretorikan*, bai Zizeron eta Kintilianoren obretan azaltzen ziren bertuteei eta elkarbizitza baketsuari buruzko gogoetak. Gainera, Aristotelesek hain maisukiro burutu zuen analisi etiko-psikologikoa, neurri batean unibertsala bazen ere, alderdi sozialari eta legeriari zegokion heinean, ez zuten baliagarritzat jo, ondorengo mendeetan kristau ideologia, esan bezala, nagusitu baitzen. Horrela, antzinateko arte erretorikoaren alderdi etikoa baztertuta gelditu zen, gorago aipatutako teknizismoa nagusitu zelarik.

Bestalde, antzinate berantiarreko nahiz Goi Erdi Aroko giza elkarteetan askatasun politikorik gabeko erregimenak zirelarik, erretorikak politikarekin eta boterearekin zuen jatorrizko lotura galdu egingo du. Hitz gutxitan esateko, arte erretorikoa, giza komunikazioa arautzen eta interpretatzen zuen arte edo teknika bat izatetik, diskurtso konbentzigarriak egiteko arau bilduma soila izatera helduko da, eta arlo judizialarekin eta, noski, literarioarekin mantenduko du lotura estua. Alderdi komunikatiboa oraindik ere landuko du erretorikak baino, batez ere, elizgiroan sortu eta loratuko den predikaziorako bildumatan (jada Erdi Aroan *artes predicandi* deituko diren horietan). Bestela, epaiketa diskurtsoa izango da gehien landuko den diskurtso mota, arlo judizialean emango zaion erabilpenagatik. Panegirikoak, hau da, goraipamen diskurtsoak, nolabaiteko funtzio soziala bete bazuen ere me-

na horren garapenak erlaziorik baduela antzinate berantiarrean auzitegi zibilen funtzionamenduak izan zituen aldaketekin (J. Ward, *op. cit.*, 77-78; ik. Baita M. Leff, «The Material of the Art in the Latin Handbooks of the Fourth Century A.D.», *Rhetoric revalued*, Brian Vickers (arg.), New York, 1982, 72. or.

robingiarren, godoen eta ostrogodoen gorteetan, dena den, esparru literarioan erabilia izango dira, batez ere.

Esan dugunak mendebaldeko egoera sozio-politikorako balio du, baina baita ekialdeko erromatar inperioaren boterepean zeuden hirietarako ere, kontuan izanik laugarren mendean inperio horretako bi alderdien arteko bereizkuntza behin betirako errotuta gelditu zela. Ekialdeko eskolatan laugarren mendeko loraldia erretorika eta literaturaren arloan islatu zen eta, batez ere, *progymnasmata* nahiz antzeko eskola ariketa erretorikoen erabilpenean, hau da, literatur hizkuntzan izan zuen eragina: eredu klasikoaren berreskurapena eta korrante atizistaren nagusigoa izan ziren loraldi horren ezaugarri nabarmenenak. Panegirikoaren loraldia eta horren funtzio soziala izan ezean, erretorikaren loraldi horrek ez zuen benetako eraginik izan garaiko gizartean eta giro politikoan.

Deskribatu berri dugun testuinguru kulturallean Aristotelesen *Erretorikak* ez zuen arrakastarik izan, logika, etika, eta politikaren arloetan sustatzen baitzuen komunikazio ekintzaren azterketa eta elkarrekintza horrek ez baitzuen oihartzunik izan kristau moralak zuzendutako eta askatasun politikorik gabeko giza elkarteetan.

Ondorengo mendeetan, karolingiar errenazimendu kulturaletik aurrera, latindar literaturak pizkunde nabarmena ezagutu zuen. Arte erretorikoak latindar iturri klasikoaren eraginpean jarraitu zuen eta, bestalde, bederatzigarren mendeaz geroztik ez da sortuko arautegi erretoriko berririk. Arte erretorikoaren baitan banantze prozesu bat jartzen da abian arrazoi desberdinak medio eta horrela *artes dictandi* (hamaikagarren mendean), *artes poeticae* (hamabi eta hamahirugarren mendeetan) eta *artes praedicandi* (hamahirugarrenetik aurrera) deiturikoak sortuko dira. Bereizketa prozesu horretan eraginkorrak izan ziren antzinate berantiarraz geroztik gauzatu ziren aldaketak eskola giroan eta gizartean, hala nola, arte erretoriko berantiarren izaera tekniko eta espezializatua, antzinateko iturri erretorikoen laburpenak egiteko joera edota figura erretoriko eta literatur hizkuntzaren ganako interes berezia Erdi Aroko *Triviuma* osatu zuten hiru arteen arteko elkarkidetzak eskola metodoak medio, etab. Horrela, bederatzigarren mendetik aurrera ezin dugu «arte erretorikoaz» hitz egin, kontzeptu horrekin komunikazio ekintzari buruzko arautegi orokorra adierazi nahi badugu behintzat, ez baitago horrelako bilduma globalik, esparru desberdinetan aplikatu daitezkeen arautegi zehatzak eta bereziak baizik.

Bestalde, maiz esan ohi da hamabigarren mende inguruan sartu zela berriro Aristoteles mendebaldeko kultur esparruan, zenbait idazlek, arabiar autoreen obretan oinarrituta, egin zituzten latinezko itzulpenen esker. Zalantzarik gabe, Aristotelesen arabiar itzultzaile eta komentariogileen irizpideek baldintzatu zuten, neurri batean bederen, greziar filosofoaren obren interpretazioa. Horregatik, interesgarria deritzot arabiar eskolak eta irakaskuntza

laburki aztertzeari, bertan erretorikak, logikak eta, orokorrean, arteek betetzen zuten funtzioa hobeto ulertu ahal izateko. Hori kontuan hartuta, ondoko atalean Aristotelesen *Erretorikaren* itzulpen eta iruzkin nagusiak aipatuko ditut eta baita *Erretorikari* buruz eskaini zituzten interpretazioak ere.

2. Erretorika eta arte liberalak Erdi Aroko arabiar tradizioan

Arabiar tradizioan hezkuntzaren oinarria erlijiosoa zen, zientzien helburua jakintza sakratuak aztertu ahal izateko bidea prestatzea baitzen. Arte edo zientzia horiek, orokorrean, bi taldetan bana zitezkeen: batetik, jakintza erlijioso eta linguistikoak, eta, bestetik, arrazionalak edo zientifikoak⁸. Lehenengo bidez ikasleek trebetasun eta gaitasun linguistiko eta historikoak eskuratzaren zituzten, Korana eta Tradizioak irakurri nahiz interpretatu ahal izateko; diziplina linguistikoek, bestalde, funtzio propedeutikoa betetzen zuten, erlijioaren arloan nagusiak ziren ikasgaiei (hala nola, exegesia, zuzenbidea, teologia) heltzeko baliabideak ematen zituztelako. Bestalde, jakintza zientifikoen helburua, arrazoa eta prozesu naturalen behaketa medio, egia bilatu eta zabaltzea zen.

Dena den, aipatu jakintzen banaketa ez da hamargarren mendera arte erabat landu eta gauzatuko eta, gainera, aurreko etapak ez ditugu ondo eza gutzen. Edonola ere, gutxi gorabehera bederatzigarren mendean sortu ziren *madrasah* izeneko eskola erlijiosoetan, Korana eta Tradizioak ziren testuliburu oinarritzakoak. Horien gidaritzapean irakurketa eta idazketa barneratu ondoren, gramatika, erretorika eta literatura lantzen zituzten ikasleek. Bederatzigarren eta hamargarren mendeetan sortu ziren Aristotelesen *Erretorika* eta *Poetikaren* lehenengo itzulpenak eta izan zuten eraginik arabiar hezkuntza sisteman. Arabiar itzulpen horien egile ezagunenak Al-Fârâbî, Averroes eta Avicenna ditugu. Batez ere lehenengoari buruz, hitz batzuk esan nahi ditut, bere lanek (horien artean *Erretorikaren* iruzkin bat) eragin sakona izan zutelako Erdi Aroan, bai arabiar tradizioan, bai kristau pentsamoldea nagusi zen lurretan.

Al-Fârâbî bederatzigarren mendeko idazle bat dugu eta bere obren artean, aipatu *Erretorikaren* iruzkinaz gain, oso ezaguna izan zen zientzia eta ja-

⁸ Arabiar autoreen ekarpenari buruz ikus daiteke, laburpen orokor gisa, Fakhry, M., «The Liberal Arts in the medieval arabic tradition from the seventh to the twelfth centuries», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du quatrième Congrès International de Philosophie médiévale*, Montréal-Toronto, 1969, 91-98 eta akta horietan ere, Gómez Nogales, S., «Las artes liberales y la filosofía hispano-musulmana», 493-505. Âl-Fârâbiren eraginari buruz, Hammond, R., *The Philosophy of Alfarabi and its influence on medieval thought*, New York, 1947.

kintzen katalogo bat, non sarrera labur baten ondoren, jakintza arlo desberdinak aipatzen zituen⁹. Obra hori latinezko bi itzulpenetan eta Domingo Gundisalvok eginiko laburpen batean (*De Scientiis*)¹⁰ iritsi zaigu. Bertan honako jakintza hauek aipatzen ditu: hasteko, lengoaiaren zientzia edo gramatika eta logika, zeina lengoaiaren arau eta mekanismoak azaleratzen dituen zientzia baita. Erretorika eta poetika ere logikarekin elkartzen ditu, guztiak argudiatze moduak kontsideratzen dituelako. Ondoren, matematika, fisika eta metafisika aipatzen ditu eta, azkenik, politika, zuzenbidea eta teologia. Esan behar da bestelako jakintza motak, hala nola, astronomia, musika, mekanika, geometria etab. matematikaren barruan sartu beharreko arloak kontsideratzen dituela. Banaketa horren esanahia ulertzeko Al-Fârâbîren pentsamoldea eta bere garaiko testuinguru soziala eta ideologikoa hartu beharko genituzke kontuan. Dena den, oraingo honetan interesatzen zaigun helburuari gagozkiolarik, hots, erretorikaren lekua jakintzen sailkapenean eta Aristotelesen ekarpena sailkapen horretan, nahikoa dugu ohartzea katalogo horren azpian Aristotelesen izatearen teoria aurkitzen dela, besteak beste, lau kausen teoria eta izate desberdinen sailkapena, zeinaren arabera banatzen baititu zientziak ere: gramatika eta logika jakintza arlo orotan erabilgarriak diren instrumentutzat hartu behar dira. Ondoren, goranzko ordenan eta izate mota desberdinen mailaketa jarraituz, matematika, fisika eta metafisika bereizi behar dira, azken zientzia horren helburua, izate gorpuzgabeak eta Jainkoa bera direlarik. Erabat lotuta zientzia horiekin, gizartea eta giza arazoetaz diharduten jakintzak daude, hau da, politika, zuzenbidea eta teologia non, erlijioa, lege erlijiosoaren defentsa eta gizartearen funtzionamendua bereizi ezineko kontzeptuak diren: lotura hori arabiar kulturaren ezaugarri berezkozat hartu behar dugu, munduaren ikusmolde platoniko-aristotelikotik kanpo gelditzen baita.

Jakintzen katalogo horrek bezainbat ospe izan zuen Al-Fârâbî Aristotelesen *Erretorikari* buruz idatzitako iruzkinak, non arte horren berezkitasunaz eta logikarekin zuen erlazioaz ziharduen.

3. Filosofia eskolastikoa eta Aristotelesen Erretorikaren itzulpenak

Aristotelesen *Erretorika* eta Al-Fârâbîren iruzkina lehenengo aldiz latinera itzuli zituena, Hermannus Alemannus izan zen, antza, 1240-1256 urteetan,

⁹ Lomba Fuentes, J. «Sentido y alcance del catálogo de las ciencias de Al-Fârâbî», *Arts Libérales et Philosophie au moyen âge, op.cit.*, 509-516.

¹⁰ Domingo Gundisalvo, *De Scientiis*, Manuel Alonso (arg.), Madrid-Granada, 1954.

greziar filosofoaren beste zenbait lanekin batera¹¹. Lan horien hitzaurreetan zenbait argitasun ematen dizkigu: alde batetik, Al-Fârâbîren iruzkin bat latineraz itzuli duela jakinarazten digu, nahiz ez osoa (*Cuius glose plus quam duos quinternos ego quoque transtuli in latinum*)¹². Bestalde, esaten du, *Erretorika* eta *Poetika*, iruzkinaz geroztik itzuli zituela eta bere itzulpenen iruzkinak egiteko lana, garaiko jakintsuen eskuetan uzten duela (*Laborem vero distinguendi tres tractatus libri huius principales in suas differentias...usque ad ultimas particulas perveniatur doctoribus derelinquo*)¹³. Itzulpenari dagokionean, hitzaurreetan topikoak diren zenbait ideia adierazten dizkigu: itzulpen lanaren zailtasuna gogorarazten digu, arabiar itzulpenen eta grekoaren beraren iluntasuna, eta umiltasun faltsuaren topikoa erabiliz, akatsen aurrean bihozberatasuna eskatzen du. Benetan garrantzitsua iruditzen zaidana honako hau da: zalantzarik gabe Hermannusek, erretorika eta poetika logikaren esparruan sartu behar direla uste du eta horretan, Aristotelesen lanak, Tulioren eta Horazioren tradizioetatik bereizten ditu, hau da, tradizionalki eredu erretoriko kontsideratu ohi den autorearengandik eta poetikaren ordezkari latindarrarengandik.

Logikaren osagarritzat hartu behar dira (Erretorika eta Poetika) Aristotelesen asmoari jaramon eginez gero. Al-Fârâbî, Avicenna, Averroes eta beste arabiar ezagunen obrak aztertu dituztenetik, inor ez dago aipatu bi arteak Logikaren adarrak direla zalantza egiten duenik¹⁴.

Bereziki interesgarria deritzot Hermannusen itzulpenaren atal bati non Avicenna eta Averroesen glosak tartekatzen dituen eta erretorikaren erabilgarritasuna aitortzen, egia eta justizia soziala bermatzeko eraginkorra dela esanez.

Erretorika, bestalde, erabilgarria da eta probetxuzkoa justiziaren aldeko egia hobea delako aurkako bizioak baino. Bestalde, epaietak behar den bezala burutzen ez direnean, aipatu bizioak, derrigorrez, dira garaile. Eta egokiera horrek merezi du gaitzespena eta errieta. AVERR.: Erretorikak bi erabilpen ditu, bata da herritarrak ongi jokatzera bultzatzea, gizakiak naturaz, justiziaren aurkako ekintzak egiteko joera baitu. Beraz, diskurtso erretorikoa gizakia geldiarazten ez badu, legearen kontrako grinak gizonez jabetzen dira eta (gizonek) justiziaren aurkako ekintzak burutzen dituzte. INTERPRET. DIO era berean, egiari jarraitu behar zaio justiziari dagozkion ekintzak burutzeko eta legearen kontrako grinaren faltsukeriari uko egin behar zaio eta egia horietara jotzen du erretorikak, baita gaitzespen eta errietara ere bizioei aurre egiteko. Gainera, badago gizon mota bat zeina konbentzitzea ez baita erraza beraien eta gure arteko arazoetan zientzia

¹¹ Itzulpen horien data eta eredu arabiarrei buruz ikus, W. F. Bogges, «Hermannus Alemanus's rhetorical translations», *Viator*, 1971, 2, 227-250. Bestalde obra horien testuak G. Lacombe jaso zituen (*Aristoteles Latinus* I, 102-103 eta 211-212).

¹² Lacombe, *op. cit.*, I, 211.

¹³ Lacombe, *op. cit.*, I, 211.

¹⁴ *Aristoteles Latinus*, I, 211.

zehatz eta aukeratuena erabilia ere, nahiz erraza den guretzako horiek limurtzea beraien bide eta ibilbidetik abiatuz; izan ere, zientzia jakin bateko diskurtsoa irakaskuntzari dagokio baina ezin dugu hori erabiltzeko saiakera egin; are gehiago, behartuta gaude honetara, hots, froga konbentzigarriak eta diskurtsoa erabiltzera guk eta gure solaskideak komun ditugun kontzeptuen bitartez, Topikoetan esan dudana bezala. Eta sinestarazi daitezke kontzeptu aurkakoak, si-logismoetan gertatzen den bezala. AVERR. Gaizki jokatu du eta ez du baina ez bi horiek batera, bat bakarra baizik. ARIST. Izan ere, gu batzuetan maltzurkeriaren kontzeptutik abiatuz aurkakoaz konbentzitzen saiatzen gara baina ez aurkako bi kontzeptu batera lotzeko, baizik argi ikus dadin nola ezeztaz dezakegun justua ez dena norbaitek hitz egiten duenean horretaz.

Ideia, berez, ezaguna zen, batez ere, Zizeroni esker, hark azpimarratzen baitzuen *De Inventione* obrari egindako hitzaurrean bokantzak izan zuen indarra eta eragina giza elkarteak gizarte bihurtu eta zibilizatzeko. Dena den, nahiz testu horretan erretorikak egia eta justiziaren alde egin dezakeen indarra azpimarratzen den, berehala Aristotelesen testuari jarraiki, indar hori gauzatzeko ezinbestekoa den eduki logikoei heltzen die autoreak.

Hermannusen ondoren *Erretorikaren* bi itzulpen gehiago egin ziren, bata, *Aristoteles Latinus* bilduman *Translatio vetus* deitzen dena eta bestea G. Moerbecek burututakoa 1270 inguruan Pariseko unibertsitatean, Aristotelesen obra guztia itzultzeko abian jarri zen proiektuaren barruan.

Translatio vetus delakoa hiru eskuizkributan baino ez zaigu iritsi eta, L. Spengelen ustetan, egilea, Bartholomeo de Messina da; gainera, argitaratzaile horrek berak dioenez, lehenengo itzulpen hori ez zuten ia erabili ere egin eskoletan. Onarpen eskas horren arrazoia ez dago argi: J. J. Murphyk dioenez, Hermannusek egindako itzulpenaren ospe txarraren ondorioak jasangoz zituen¹⁵ eta, behar bada, egilearen jatorriak ere izango zuen eraginik, Pariseko erdigune filosofiko aristoteliarretik urrun sortua izan baitzen Bartholomeoren lana.

Oso bestelako zortea egokitu zitzaion Guillermo Moerbeckeren itzulpenari, sortarazi zuen ingurugiroa guztiz desberdina baitzen: hain zuzen ere, itzulpen hori, Pariseko unibertsitatean puri-purian zegoen Aristotelesengana-ko interesaren fruitu zuzena dugu. Honela dio garai hartako kronika batek¹⁶:

Brabanteko Guillermok, Predikatzailen ordenako lekaideak, Aristotelesen obra guztiak itzuli zituen grekotik latinera, hitzez hitz (*verbum de*

¹⁵ Roger Baconek, adibidez, esaten zuen Hermannusen itzulpena hain gaizki egina zegoela ezen ezin baitzen ia irakurri ere (A. Jourdain, *Recherches critiques sur l'âge et l'origine des traductions latines d'Aristote et sur des commentaires grecs ou arabes employés par les docteurs scolastiques*, New York, 1960 birrinp., 143 or.).

¹⁶ Ap. Lindenbor, *Scriptores rerum germanicarum septentrionalium*, ed. Fabricius, 1706, 206 or. (Murphyk aipatua «Aristotle's Rhetoric in the middle ages» artikuluan, *Quarterly Journal of Speech*, 1966, 52, 111 or.).

verbo) eta itzulpen hori, Akinoko Tomasen aholkuz, ikasleak erabiltzen ari dira eskoletan.

Guillermoren itzulpena 96 eskuizkributan gorde da eta, zalantzarik gabe, lehenago grekotik edota arabiarretik egindako itzulpenak baztertuta utzi zituen: Erdi Aro guztian zehar *Erretorikaren* itzulpen estandarra kontsideratu behar dugu.

Bestalde, esan behar da XIII. mendean hasi eta Erdi Aroaren azken hamar-kadak arte, hau da, Eskolastikaren loraldiaren garaian, erretorika ez zela ikasgai beharrezkotzat jo unibertsitate garrantzitsuetan eta horren lekuko ditugu unibertsitate desberdinetako estatutuak¹⁷. Parisen, adibidez, 1215, 1252 eta 1255 urteetako estatutuek aditzera ematen digute goi-mailako ikasketek bost urteko iraupena zutela lizentziaz at (bi urte) eta horietan *Trivium* murriztu bat irakasten zela, batez ere, gramatika eta dialektika, (hau da, Logika), Aristotelesen lanen gidaritzapean. *Quadriviuma*, berriz, Aristotelesen filosofia naturala baino ez zen¹⁸. Oxfordi dagokionez, 1268ko estatutua gordetzen da eta argi antzematen da bertan Aristotelesen obra logikoak zirela nagusi gramatika ikasketekin batera. *Erretorika* ez da hor ere inon aipatzen. Bolognan, berriz, *Studium Legale* zeritzon unibertsitateaz gain bazegoen beste elkarte bat *Universitas artistarum* deiturikoa, non autore klasikoek eta erretorikak leku bat zuten *curriculumaren* barruan. Orokorrean, esan daiteke hamahirugarren mendetik aurrera eta humanismoa hedatu arte, unibertsitate eta fakultateetan Arte Liberaletan oinarritutako ikasketa sistema erabat aldatu zela. Arte horien protagonismoa gutxitu egin zen eta literatura nahiz autore klasikoen irakurketak eta estudioak bide eman zioten filosofia eta bere hiru adarrak nagusi ziren *curriculum* zientifikoago bati. Horrela, *Quadriviuma, pars naturalis* delakoan estudiatzen zen eta *Trivium* murriztu bat (erretorikarik gabekoa), *pars rationalis* delakoan. Bolognako egoera salbuespen bat da.

Gauzak horrela, pentsa daiteke Aristotelesen *Erretorika* ere baztertua geldituko zela programa ofizialetatik; hala ere, iritsi zaizkigun eskuizkribuen ugaritasunak obra ezaguna zela ematen digu aditzera¹⁹. *Erretorikaren* itzulpe-

¹⁷ Ikus laburpen gisa, J. Reginald O'Donnell, «The liberal arts in the twelfth century with special reference to Alexander Nequam (1157-1217)» eta Ph. Delhaye, «La place des arts libéraux dans les programmes scolaires du XIII^e siècle», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge*, Montréal-Paris, 1969, 127-136 eta 161-173, hurrenez hurren.

¹⁸ Aipatutako Aristotelesen obrak honako hauek dira: *Metaphysica, Physica, Liber de animalibus, De Caelo et mundo, De Meteoris, De anima, De Generatione, De sensu et sensato, De somno et vigilia, De plantis, De memoria et reminiscencia*. Informazio gehiago lortzeko estatutuei buruz ik. H. Rashdall, *The Universities of Europe*, ed. berria F. M. Powicke eta A. B. Emdenen eskutik, Oxford, 1942, 3 bol.

¹⁹ Anekdotak gisa honako datu hau aipatzeari adierazgarria deritzot: Abbatisvillako Gerhardek zenbait xedapen adierazi zituen bere testamentuan, hil ondoren bete zitezen. Azken borondate horien artean Aristotelesen *Corpus Vetustius* zeritzon idazki multzoaren, eta *Etika, Politika* nahiz *Erretorikaren* aurkibide bat egiteko eskaera azaltzen du, teologia ikasleentzat probetxugarria izango dela-

na dakarten eskuizkribu kopuru aberats horrekin batera, *Erretorikari* buruzko iruzkin batzuk ere iritsi zaizkigu, unibertsitate giroan erabilitakoak guztiak, horien artean, Gil Erromakoak egindakoa (1280 inguruan), John Buridanek eta Johannes Jandunokoak idatzitako *Quaestiones* edo galdetegi itxurako hausnarkeak (1285/89 eta 1328 urteetan) eta Guido Vernaniren *Summa* (1324 inguruan).

Unibertsitate giroan erabili ziren beste erretorikako obrak, Zizeroni egotzitakoak eta Boezioren *De Differentiis topicis* dira. Zizeroni dagokionez, bi izenburu aipatu behar dira hizlaritzari buruzko bere lan guztien artean, hots, *De inventione* liburuxka eta *Rhetorica ad Herennium* anonimoa. Dena den, hamahirugarren mendean ez dira lan horiek aipatu ere egiten unibertsitate *curricula* gehienetan, lehen esan dugun bezala, eta Erdi Aroan horiei egindako iruzkin kopurua oparoa izanik ere, gutxi dira hamahirugarren mendean egindakoak. Eskuizkribu kopien arabera, irakurriagoa izan zen Boezioren aipatutako obra, bereziki, laugarren atala. Pariseko unibertsitate estatutueta, adibidez, Boezioren tratatua oporralditarako gomendatzen zen liburueta bat zen, filosofoei buruzkoekin eta *quadrivium*az zihardutenekin batera. Izan ere, ikuspegi erabat logizista zuen Boezioren obrak, topiko erretoriko eta dialektikoen arteko desberdintasunetaz ari baitzen, aldi berean, dialektika eta erretorikaren arteko parekotasunak eta kontrasteak azpimarratuz. Laugarren liburua, bestalde, arte erretorikoaren azalpen orokor bat zen, non Aristotelesen kategorien eragina ukazina zen. Esanguratsua da Boezioren liburuaren laugarren atalak izan zuen arrakasta, datu horrek nabarmentzen baitu metodo eskolastikoaren eta logikaren nahiz teologiaren nagusigoa hamahirugarren mendeko unibertsitateetan, hamabigarren mendera arte nagusi izan ziren literatura, erretorika eta autoreen aldeko joeraren oso desberdina.

Boezioren aipatu liburuak, bestalde, sei iruzkin jaso zituen hamahirugarren mende horretan zehar, gehienak laugarren atalari buruzkoak. Ukazina dirudi eskolastikaren loraldi garaian, unibertsitate intelektualek zizeroniar tradizio erretorikotik urrundu eta aristoteliar doktrinarengana jo zutela.

Testuinguru horretan aztertuko dugu, gainera bada ere, Aristotelesen *Erretorikari* egindako iruzkin famatuena, hots, Gil Erromakoarena, Buridanek idatzitako *Quaestiones* delakoekin erlazionatuz.

4. Aristotelesen *Erretorikaren* iruzkinak

Gil Erromakoa edo Egidius Romanus (1247-1316), eragin handiko pertsonaia izan zen Pariseko unibertsitatean eta kultur giroan. 1287an agustin-

koan (ik. K. M. Fredborg, «The logic of John Buridan», *Acts of the third European Symposium on Medieval Logic and Semantics*, Copenhagen, 1976, p. 48). Dokumentu horretan aurkibide baten beharra azaltzeak, Aristotelesen obra horiek irakurtzen zirela frogatzen du; bestalde, aurrerago esango dugun bezala, *Erretorika*, *Etika* eta *Politikarekin* bilduta azaltzen da, ez, ordea, logikaz ari diren obrek.

darren ordenako buru izendatu zuten eta errege nahiz elizgizon boteretsuen artean entzute handia lortu zuten intelektual gisa. Glorieuxen esanetan²⁰, gu- txienez 56 tratatu idatzi zituen eta beste 31 zalantzas egotzi ohi zaizkio. Aristotelesen *Erretorikari* dagokionez, bi lan aipatu behar ditugu hemen, 1275tik 1282ra bitartean idatzitakoak: iruzkin luze bat da, bata; sarrera gisa idatzi zuten tratatu labur bat, bestea.

Lehenengoan, Erdi Aroan iruzkinak egiteko ohizkoa zen metodoa jarraitzen du, hots, testu originaletik hartutako lemak aipatu eta *divisio* deituriko bereizketak markatuz, lemak zatitan bereizi eta horiei buruzko hausnarketa egin²¹. Berrikuntza gutxi gehitzen die Aristotelesen testu eta ideiei, bere asmoa, parafrasia moduko baten bitartez, pasarteak eta edukiak argitzea baita. Iruzkinaren zati esanguratsuenak, zalantzarik gabe, *Erretorikaren* lehenengo bi liburuei egindako sarrerak dira, horietan erretorika eta dialektikaren arteko desberdintasunetaz eta emozio nahiz sentimenduen naturaz ari baita, hurrenez hurren.

Bestalde, interesgarria deritzot baita Gilen beste liburuxka bat komentatzeari, hots, *De differentia rhetoricae, ethicae et politicae*, *Erretorikaren* iruzkinaz geroztik idatzi baitzuen eta iruzkinaren sarrera moduko obratxo gisa har baitaiteke²². Beraz, aipatu tratatu hori eta iruzkinaren hitzaurreak hartuko ditugu kontuan Gilek eduki nagusitzat hartzen dituen gaiak azaltzeko, hots, erretorikaren definizioa, dialektikarekin alderatuz, arte eta ezagutzen sailkapen orokorraren baitan; bigarrenez, erretorikaren baliabideak pertsuasioa lortzeko eta, azkenik, sentimendu edo emozioei buruzko hausnarketa.

Aristotelesek *Erretorikaren* hasieran ematen duen lehen definizioa abiapuntutzat hartzen du Gilek arte erretorikoa zertan datzan zehazteko: *Rhetorica est assecutiva dialectice*. Bi jakintzen arteko parekotasunak nahiz desberdintasunak sei puntutan biltzen ditu Gilek:

Bost desberdintasun ondoriozta daitezke Erretorikaren eta Dialektikaren artean. Lehenengoz, erretorikoa gai moraletara gerturatzen da, batez ere, eta dialektikoa, gai espekulatibotara. Bigarrenez, erretorikoari dago- kio sentimenduei buruz erregelak ezartzea eta ez dialektikoari. Hirugarrenez, diskurtso erretorikoaren epaile eta entzulea, arrunta eta inozoa da; diskurtso dialektikoarena, aldiz, burutsu eta azkarra. Laugarrenez, erreto-

²⁰ P. Glorieux, *Repertoire des maîtres en théologie de Paris au XIII^e siècle*, I, Paris, 1934, 140-148.

²¹ Minnis, A. J., Scott, A., B. Wallace, D., *Medieval Literary Theory and Criticism (c.1100-c.1375)*. *The commentary tradition*, Oxford, 1988, 1-11.

²² Gerardo Bruni, «The 'De differentia rhetoricae, ethicae et politicae' of Aegidius Romanus, *New Scholasticism*, 6 (1932), 1-18. Aristotelesen iruzkinen aipamena honako artikulu honek jasotzen du: Lohr C., «Medieval Latin Aristotle commentaries», *Traditio* 26, 1970. Erretorikaren iruzkina hamaseigarren mendeko edizio honetan irakur daiteke, *Rhetorica Aristotelis cum fundatissimi arcium et theologiae doctoris Egidii de Roma luculentissimis commentariis nunc primum in lucem editis*, Venezia 1515 (argazk. Errepr. Minerva, Frankfurt, 1968).

rikaren baliabideak, entimema eta adibidea dira, dialektikarenak, berriz, silogismoa eta indukzioa. Bosgarrenez, gorago aipatu dudan bezala, erretorikak lortu nahi duen pertsuasioa banakako gauzei buruzkoa da, dialektikaren frogapena, berriz, gai unibertsalen ingurukoa. Seigarren desberdintasun bat ere aipa daiteke, hots, nahiz dialektikak bezala erretorikak ere leku komunak erabiltzen dituen, ez dira modu berdinean erabiltzen han eta hemen (1v1).

Ikusten denez, Gilek erretorika, dialektikarekiko duen erlazioaz lagunduta definitzen du eta, Zizeron edota hamabigarren mendera arte indarrean egon zen zizeroniar tradizio erretorikorik aipatu ere ez du egiten. Tradizio horren baitan iturri latino klasikoek ematen zituzten definizio eta edukiak ondoko esaldi famatu honek bil ditzake: *Rhetorica est bene dicendi scientia in civilibus quaestionibus*²³. Definizio horretan ez da dialektikaren aipamenik egiten; aitzitik, osagai nagusiak honako hauek dira: arte erretorikoaren gaia edo materia espezifikoaren aipamena (*civiles quaestiones*) eta edertasunez nahiz oparo hitz egiten irakasteko eta konbentzitzeko helburua. Definizio programatiko horren ondoren, *Rhetorica ad Herennium* eta *De inventione* iturrietan oinarritzen diren obra guztietan arautegi erretorikoaren azalpena aurkitzen dugu, diskurtsoan eta hizlariaren zereginetan oinarritutako arauak. Ez dugu inondik ere entzuleriaren edota hizlariaren azterketa etiko-psikologikorik aurkitzen. Bestalde, epaiketa diskurtsoa eta diskurtso mota horren ingurugiro anitza eta konplexua ziren arautegiaren ardatza, baita hizkuntza ederra eta jatorra lortzeko baliabideen azterketa ere.

Hamabigarren mendera arte lozorroan egon zen aristoteliar tradizioa oso bestelakoa da. Arabiar itzultzaile eta komentariogileen zordun den Gilek, erretorika, dialektikaren esparruan kokatzen du edo, hobe esateko, haren menpean, mota bereko baliabide formalak erabiltzen dituela azpimarratuz. Gainera, ez batari, ez besteari, ez die esleitzen materia jakinik eta, horregatik, ez dira erabat zehatzak eta, materiari dagokionez, ezin dira determinatuak diren beste zientziekin alderatu. Esan beharra dago, halere, dialektika eta erretorikaren arteko konparaketa argumentu ezaguna zela zizeroniar tradizio erretorikoa ordezkatzeko duten zenbait obratan, hala nola, gorago aipatu Kasiodororen *Institutiones* deiturikoan, Isidororen Etimologiatan edo Alkuinoren *De arte dialectica* tratatuan. Obra horiek guztiek arte liberaletaz dihardute eta aipatu alderaketa *Triviuma* osatzen zuten bi arteren arteko erlazioa zehazteko baino ez da gaineratzen (hots, erretorika eta dialektikaren artekoa). Aipatu berri ditudan autoreek, argumentu berdinak errepikatzen dituzte dialektika eta erretorikaren arteko konparaketa egiteko: dialektika ukabilarekin aldera daiteke; erretorika, aldiz, esku zabalarekin, lehenengoak diskurtso

²³ Kasiodorok ematen du definizio hau seigarren mendean (*Institutiones*, II) latindar erretoriko klasikoan eta berantiarren obretan oinarrituz. Geroago, Isidorok (*Etymologiae*, VII. mendea) eta Alkuinok (*Dialogus de rhetorica et virtutibus*, IX. Mendea).

laburra baitarabil eta hitzak uzkuertzen baititu; bigarrenak, berriz, diskurtso oparoa eta aberatsa du gustuko eta hitzak zabaltzen ditu. Dialektika, gainera, zorrotzagoa da argudioen bilaketan eta entzule gutxi eta ikasiak eskatzen ditu. Erretorikak, aurkitutako argudioak azaltzeko hitz-jario oparoa du eta talde jendetsuei hots egiten die²⁴.

Tradizio luzea duen metafora da ukabilarena (Varronek aipatzen du lehen aldiz latindar autoreen artean) baina, edonola ere, ez da antzematen konparaketa horretan erretorikaren mendekotasun aztarnarik dialektikarekiko; aitzitik, azken horren diskurtso zorrotza eta laburra azpimarratzen da, erretorikaren hitz jario oparo eta aberatsaren ondoan. Dialektikaren espresio itxia eta laburregia ulergaitza gerta daitekeela ematen zaigu aditzera; erretorika beti oparotasuna eta esamolde ederrekin parekatzen da eta dialektikaren gainetik kokatzen. Inpresio berdina jaso dezakegu Erdi Aroko ikonografia aztertzen badugu, maiz erlazionatzen baita irudietan Dialektika sinbolo ziztatzaile eta mingarriekin, arte horrek darabilen argudiatze silogistikoaren ezau-garriak adierazteko²⁵.

Aristoteliar tradizioaren eta zizeroniarraren arteko desberdintasun bat, batak eta besteak entzuleria baloratzen duen moduan antzeman daiteke, dialektikak entzule ikasiak eta aukeratuak eskatzen baititu: edonork ezin du arte horren argudiatzeko era zorrotza eta bildua ulertu. Erretorikak, aldiz, jendetzak konbentzitu eta mugitzeko ahalmena du. Dena den, jendetza hori izendatzeko erabiltzen den hitzak (*turbas*) konnotazio negatiboa ematen dio erretorikaren ahalmen horri, ezjakinen gain egindako manipulazio errazarekin berdintzen baitu erretorikaren helburua.

Hitz gutxitan esateko, hamabigarren mendera arte nagusitu zen zizeroniar tradizioan, hitz jario oparoa eskuratzeko teknikak eta epaiketetan argudiatze eraginkorra lortzeko baliabideak irakasten ditu, batez ere, erretorikak. Dialektika, aldiz, jakintsu ikasi eta adimentsuek osatutako talde txikien zeregin aukeratua baino ez da, filosofiaren adar logikoa lantzen duten jakintsu aukeratuen zeregina.

Aristotelesen *Erretorika* oinarritzat hartzen duten komentariogileek, Gil Erromakoa, Buridan eta beste zenbait barne, jaramon egiten diote erretorikaren dialektikarekiko menpekotasunari eta konparaketaren elementu desber-

²⁴ Aipatutako konparaketa, Alkuinoren *De Dialectica* obratik hartua dago (Migne, *Patrologia Latina*, 101, 955): *Dialectica et rhetorica est, quod in manu hominis pugnus astrictus et palma distenta. Illa brevis oratione argumenta concludit; ista, per facundiae campos copioso sermone discurrit. Illa verba contrahit; ista, distendit. Dialectica siquidem ad inveniendas res acutior; rhetorica ad inventas dicendas facundior. Illa raras et studiosos requirit; haec frequenter procedit in turbas.*

²⁵ Oso interesgarria da Ph. Verdieren artikulua luze bat non argazki ugari eskaintzen dituen Erdi Aroko arteei buruzko ikonografia ilustratzeko: «L'iconographie des arts libéraux dans l'art du moyen âge jusqu'à la fin du quinzième siècle», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge*, op. cit., 305-356.

dinak aipatzearekin batera, nahita ez, dialektikaren nagusigoa markatzen dute. Izan ere, gaia edo materiari dagokionez, ez batari, ez besteari, ez dago-kio materia zehatz eta espezifikorik baina dialektikaren eztabaidagaiak beti unibertsalak eta espekulatiboak dira; erretorikarenak, praktikoak eta moralarekin zerikusirik dutenak. Beraz, irismen zabalagoa eta unibertsalagoa du dialektikak. Baliabideei dagokienean ere, erretorikarenak silogismoaren eta indukzioaren bertsio defektiboak baino ez dira. Eta azkenik, erretorikoaren entzuleak, inozoak eta ezjakinak dira. Dialektikaren nagusigoa argi nabarmentzen da ikuspuntu logizista duten autore guztiengan.

Aristotelesen *Erretorikaren* komentariogileak kanpo utzita, aristoteliarra den korrante logizista horretan sar daitezkeen beste iruzkinen artean, Boezioren *De Differentiis topicis* tratatuari egindakoak ere aipa genitzake. Lehen esan bezala, arte erretorikoaren aurkezpen orokor bat eskaintzen zuen Boeziok liburu horren laugarren atalean eta aurrekoetan, topiko dialektiko eta erretorikoen azterketa. Laugarren atal hori banakako liburuxka balitz bezala transmititu zen Erdi Aroan eta hamahirugarren mendean hainbat komentariogilek hartu zuten aztergaitzat, besteak beste, Pariseko Nicolausek. Horren esanetan, erretorika diskurtsoaren zientzia da, adimena nahiz emozioak mugitzen dituen. Dialektikarekin alderatuz, helburu desberdina du, adimena baino ez baitu mugiarazten dialektikak. Bestalde, bi arteen gaia edo materiaz, bereizketa bikoitza egiten du, *materia* kontzeptuaren baitan bi adiera biltzen baitira, besteak beste: batetik, arte baten eduki doktrinala (*de quo est*) eta bestetik, arte horrek aztergai duen errealitate esparrua (*circa quod est*). Doktrina edo arautegiari dagokionean, Nicolausek dio erretorikaren materia diskurtsoa edertzeko baliabideen azterketa dela eta dialektikarena, berriz, silogismoaren teoria. Batak eta besteak aztergai duten errealitateari dagokionez, dialektikak izate oro du aztergai eta egia, helburu; erretorikak, giza arazo orotaz dihardu eta ongia, errugabetasuna nahiz kontrakoak bereizi behar izaten ditu. Halere, zenbait *loci communes* edo topikoren azterketan, antzematen da bi arteek komun dituztenak badaudela nahiz batak gai unibertsalak eztabaidatzeko erabili eta besteak erabilpen zehatzetan aplikatzeko.

Aipatu dudan adibide horrek argi aditzera ematen duena hauxe da, aristoteliar tradizioan erretorika dialektikaren azpitik gelditzen dela, ordura arteko jarrera, hots, erretorikaren lehentasuna, erabat aldatua baitzegoen²⁶.

²⁶ Kontuan hartu behar da zizeroniar tradizioaren ordezkari gehienek (Fortunaziano edo Julio Viktor kasu —IV. mendean, ik. L. Halm, *Rhetores Latini Minores*, Frankfurt, 1964, 81 eta 373 hurrenez hurren—, M. Capella (V. Mendean, *De Nuptiis Philologiae et Mercurii*, J. Willis ed., Leipzig, 1983, 152)), Alkuino (IX. mendean, *Dialogus de Rhetorica et virtutibus*, *Patrologia Latina* 101, 921), etab. erretorikaren berezko eztabaidagai bezala, *civiles quaestiones* delakoak kontsideratu ohi zituztela, hau da, herritarren bizimoduarekin zerikusirik zuen oro, ia edozein gai. Dena den, erretorikak *Triviumaren* baitan leku berezia eta nagusia bete ahal izan zuen hamabigarren mendera arte. Jarrera horren azken lekukoetako bat Logikaren zabalkuntza arte Salisburyko Juan da (*Metalogikon*, II, 5-12). Hugo Saint Viktorrek idatzitako *Didascalion* entziklopedian jada *Triviume-*

Bestalde, Gilek behin eta berriz azpimarratu nahi duen beste gai bat honako hau da: erretorikaren desberdintasuna etika eta politikarekiko, Aristotelesen obran bi zientzia horiek izugarrizko eragina eta presentzia baitute erretorikaren atal desberdinetan. Adierazgarria da hori argitzeko Gilen *De Differentia Rhetoricae, Ethicae et Politicae* tratatu laburra, bertan iruzkinean jada jorratutako gai batzuetan sakontzen baitu, bereziki, erretorika eta filosofia moralaren arteko erlazioan, entimema eta adibideen ezaugarrietan eta emozio nahiz sentimenduen azterketan.

Izan ere, Etika eta Politika zientzia bereziak dira eta genero jakin bat dago-gokie. Gizatiar ekintzen inguruan hausnarketak egiten dituzte, hori materia espezifikotzat hartuta. Erretorika, aldiz, ez da horrelakoa, baizik eta, Erretorikaren lehen lerroan dioen bezala «Erretorika Dialektikaren kontrapuntua da». Biak dihardute komunak zaizkien eta inongo jakintzak berezkoak ez dituen edukietaz. Baina, hori horrela bada, eta ongi ari naizela uste dut, zalan-tza bat sortzen da zeren, badirudi, erretorika erdi bidean dagoela zientzia moralen eta arrazionalen artean. Beraz, (Aristotelesen) Erretorikaren lehen liburuan esaten den bezala, argi dago erretorika, dialektikatik sortutako zati bat dela eta ohiturei buruzko gaiak direla berari dagozkionak. Beraz, bi elementu horiek osatzen badute erretorika, arrazoi gehiago dago dialektikaren zati bat kontsideratzeko eta ez politikarena, eta onargarriagoa da Aristotelesek esandakoa (zeinek erretorika dialektikaren menpe kokatzen baitu) Tuliok esandakoa baino azken horrek, dirudienez, politikaren baitan kokatu baitzuen erretorika.

Esan beharra dago gainera, zientzia batek bere izena hartzen duela azaltzen duen objektutik eta, erretorikak komunak diren edukien berri ematen duenez eta doktrina moralik zuzenean aditzera ematen ez duenez, horregatik esaten da genero zehaztugabea duela eta Dialektikaren zati bat dela, ez Politikarena (...) Horrela, erretorikoa, zainari elementu komun horiek ezagutzea baitagokio, elementu horien bidez, konkretuak diren beste batzuetara jaisten bada, adibidez, politikara, esaten da sofista politikoa dela ez baitu propioki politikoak diren gaietatik abiatuz argudiatzen²⁷.

ko arteak Logikaren barruan kokatuta daude (Taylor, J., *The Didascalicon of Hugh of St. Victor*, New York, 1961, 206-207).

²⁷ *Nam ethica et politica sunt scientie speciales et sunt determinati generis. Circumcernunt, enim, actus humanos, tanquam specialem materiam circa quam versantur. Rethorica autem non sic; sed, ut dicitur primo Rethoricorum: «rhetorica est assecutiva dyalectice». Ambe, enim, sunt de talibus que communiter quodammodo est cognoscere et nullius scientie determinate. Sed, si sic dicimus, quod credimus bene dicendum, consurgit quedam dubitatio; nam rhetorica videtur quasi media inter scientias morales et rationales; videtur enim composita ex utroque negotio, videlicet, dyalectico et politico. Nam, ut dicitur primo Rethoricorum, contigit rethoricam, velut ad natam partem, quandam dyalectice esse et negotii quod est circa mores. Si ergo hec duo comprehendit rethorica, quare magis est quedam dyalectica quam quedam politica et quare magis assentiendum est Philosopho qui collocat eam sub dyalectica, quam Tullio qui videtur eam collocasse sub politica. Dicendum quod scientia denominatur ab eo cuius notitiam tradat; et, quia rhetorica tradit notitiam quorundam communium et non directe tradit notitiam moralis negotii, ideo dicitur esse indeterminati generis et esse quedam dyalectica eta non dicitur quedam politica (...) Sic rhetor, cuius est scire quedam communia, si per illa communia descendat ad*

Erretorikaren iruzkinean ez bezala, Gilek tratatu horretan Zizeron aipatzen du harengandik bere jarrera bereizteko erretorikaren definizioari dago-kionean. Izan ere, zientzia politikoaren (*civilis ratio*) zati bezala kontsideratu zuen Zizeronek erretorika eta harrez geroztik, Zizeron iturritzat hartu zuten autoreek. Adierazgarria da, adibidez, Viktorino bezalako komentariogile batek dioena gai horri buruz, *De Inventioni* egindako iruzkin famatuan esaten baitu erretorika zientzia politikoaren alderdi teorikoa dela eta, aldi berean, alderdi teoriko hori bi zatik osatzen dutela: bokantzak eta jakinduriak²⁸. Gilek dio Erretorikaren berezko edukiak ez direla Politikari dagozkionak, zeren bai Etikak eta bai Politikak gai espezifikoak baitutuzte berezko materiatzat; erretorikak, aldiz, inongo zientziarenak ez diren *loci* edo lekuak ditu berezko edukiak, Dialektikak bezala. Hala ere, *materia* hitzaren beste adiera bat darabil hemen Gilek, ia Viktorino bezalako komentariogile batek bereizi zuena: materia ez da soilik arte edo teknika baten edukien multzoa, doktrina bera: arte horrek aztergaitzat hartzen duen errealtate jakina ere bada. Lehenengo adieraren arabera, erretorika dialektikaren antzekoa eta mota berekoa da: leku komunetaz ari den teknika. Bigarren adieraren arabera, erretorika politika eta etikarekin estuki lotuta dago baina ez da ez horien zatia.

Dena den, erretorikaren dialektikarekiko mendekotasuna markatzeko beste baieztapen hau ere egiten du:

Bikoitza eta ia erabatekoa da erretorikaren eta dialektikaren arteko desberdintasuna. Lehenengoa, bi arte horiengandik sortzen dena da: izan ere, erretorikatik sinesmena sortzen da eta horrek adimena grina jakin baterantz zuzentzen du; dialektikatik, berriz, iritzia sortzen da zeinak bere arabera adimena baretu egin behar baitu (...) Esan dezakegu erretorika gainontzeko zientzia arrazionalengandik bereizten dela ez duelako jokatzeko argudioen bidez, haiek egiten duten moduan. Argudiatze moten artean desberdintasanak bereiz ditzakegu, horiengandik sortzen diren efektuak kontuan hartuz. Litekeenari buruz argudiatzetik iritzia sortzen da, pertsuasioa helburu duten argudioetatik, konfiantza edo sinesgarritasuna; bestalde, argudio frogagarrien bitartez eratzen da zientzia. Batzuk diote sinesgarritasuna edo konfiantza iritziarengandik desberdintzen dela ziurtasun mailaren arabera zeren ziurtasun handiagoz onartzen ditugu uste ditugun gauzak sinesten ditugunak baino. Izan ere, era horretako sineskortasuna, bereziki erretorikak sorrarazten duena, susmotzat hartu behar dugu²⁹.

specialia, ut ad politica, dicitur esse sophisticus politicus, quia non arguit ex propriis politice. (G. Bruni, «De differentia rhetoricae, ethicae et politicae», *New Scholasticism*, 1932, VI, 5-8).

²⁸ *Omnis patria quidquid agit, civilis ratio dicitur... Haec rursus civilis ratio, id est, scientia, in duobus est: in rhetorica, id est artificiosa eloquentia et in sapientia, id est, rerum conceptione ex natura veniente. Sed quia orator plus per eloquentiam gerit, idcirco rhetoricam civilis rationis partem esse dixit, sed quia duplex est, cuiusdam rationis partem; nam est ibi et sapientia. Et ut genus exprimeret rhetoricae, partem amplam magnamque esse confirmat* (Victorinus, *Explanationum in rhetoricam Ciceronis*, op.cit., 171)

²⁹ *Duplex enim quasi radicalis differentia inter rhetoricam et dialecticam est. Prima est ex eo quod generatur ex eis; nam ex rhetorica aggeneratur fides quae terminat intellectum in ordine ad appetitum; ex*

Nabarmena da zati horretan dialektika gizakiaren alderdi arrazionalari, adimenari zuzentzen zaiola eta iritziz arrazoituak sorrarazteko baliagarria dela, hau da, eztabaida intelektuala gauzatu ahal izateko; erretorikak, aldiz, adimena, grina eta irrika jakinetara bultzatzen du giza adimena, sinesmena edo konfiantzaren bidez, hau da, arrazonamendu sakon eta zorrotzak alde batera utzita. Beraz, eta gero ikusiko dugunez, arimaren zati adimentsu edo intelektuala beste zatien gaitetik dagoenez eta horren aktibitateak beste guztia gidatzen duenez, dialektikak ahalbidetzen duen argudiatze eta aktibitate intelektuala, erretorikak sorrarazten duen pertsuasioaren gaitetik dago eta erretorika ere dialektikaren menpe kokatu behar da.

Ondorio berdinetara garamatzate Gilek egiten dituen baliabide formalen komentarioek eta pasioei buruzko analisi sakonak ere.

Erretorikak darabiltzan baliabide edo froga logikoen artean Gilek entimek mak aztertzen ditu xehetasunez. Bi arteen arteko erlazioa nola zehazten duen azaltzeko guri interesatzen zaiguna honako hau da, alegia, entimemak eta adibideak dialektikak berezkoak dituen silogismo eta indukzioaren mota jakin batzuk besterik ez direla eta, beraz, erretorika, doktrina dialektikora murriz daitekeela³⁰.

Azpimarratzen ari garen ideien haritik eta *Erretorikaren* bigarren liburua hizpide hartuta, pasioei buruz luze eta zabal arituko da Gil bere iruzkinetan. Obra originalaren eta iruzkinaren artean antzeman daitekeen lehen desberdintasuna azkenak gaiari eskaintzen dion tratamendu berezian datza: Aristotelesek pasioen azterketa egokituz jotzen du arte erretorikoaren barruan pertsuasioa lortzeko, pasioek funtzio erabat eraginkorra betetzen dutelako. Gil, pertsuasioaren eta komunikazio ekintzaren marko orokorretik irten egiten da, nolabait esateko, eta gai etiko bati dagokion tratatu moduko hausnarketa bat burutzen du, pasioen naturaz, kopuruaz eta elkarkidetzaz. «Pasio» kontzeptuarekin hasi aurretik, lehenengoz pasioaren mekanismoa arimaren baitan deskribatzen du, hortik kontzeptuaren definizioa ondorioztatu ahal izateko. Horrela, zuzenean arimari, arrazoizari eta, hamahirugarren mendeko eskolastikak hain gustuko zituen antzeko gai metafisikoei heltzen die. Hasteko arimaren ahalmenak aipatzen ditu (*potentiae animae*), arima horren

dialectica vero opinio quae habet quietare intellectum secundum se (Egidius Romanus, *Rhetorica Aristotelis cum ...commentariis nunc primum in lucem editis*, Venezia, 1515, 15^b).

(...) *Dicere possumus rhetorica differre a caeteris scientiis ratiocinativis quia non eodem modo procedat per rationes ut illae. Possumus autem assignare differentiam inter ista genera rationum secundum differentias eorum quae generantur ex illis. Per rationes probabiles generatur opinio, per persuasivas fides aggeneratur sive credulitas; per demonstrativas vero efficitur scientia. Dixerunt autem aliqui credulitatem sive fidem differant ob opinione secundum certitudinem quia certius adhaeremus his quae opinamur quam his quae credimus. Nam huiusmodi credulitas et potissime quae generatur per rhetoricam quaedam suspicatio debet dici* (*Ibidem*, 16^a).

³⁰ *Nihil est aliud enthymema quam rhetoricus syllogismus et exemplum quam rhetorica inductio* (Ed. 8^a).

zatiketa hirukoitzaren arabera: begetatibo edo naturala, sentikorra eta arrazionala. Dena den, alderdi arrazionalak beste biak jasotzen edo kontrolatzen ditu eta sentikorrak, bere aldetik, naturala deitu duguna. Horrela, arima, ahalmen desberdinez osatuta egonik ere, forma bakarra dela adierazi nahi digu eta baieztapen horrekin Gil garaiko polemika teologiko batean sartzen da, zuzenki ez bada ere³¹. Ondoren, pasioen kokagunea aztertzen du eta arimaren alderdi sentikorrarekin identifikatzen, pasio horiek jasaten dituzten subjektuak sentimenak direlako.

Alderdi sentikorra, bestalde, bi zatitan banatzen da: alderdi grinatsua eta kognitiboa. Prozesu kognitibo batean, ezagutzeke dauden objektuak ariman sartzen dira eta ezagutzen den objektua, subjektu ezagutzailearen egoerak baldintzatzen du; grinak edo gurak asetzeko, berriz, arimak desiratzen dituen objektuetara jotzen du baina, pasio horren eraginez, aldatu egiten da subjektuaren gogo aldartea³².

Pasioak, beraz, arimaren alderdi sentikorrean daude eta mugimenduari berdinu daitezke, arimatik desiragarria den objektuarenganako mugimenduari, hain zuzen ere.

Puntu horretara iritsita, Gilek pasioaren definizioa ematen du Aristotelesen beste lanetara erreferentziak eginez: *Beraz, esanda dago zer den pasio bat, hots, grina sentikorraren mugimendua, hori baitzen azaldu nahi genuena*³³.

Ondoren, pasioen kopurua eta sailkapena azaltzen dizkigu Gilek horretarako arimaren zati sentikor grinatsua bitan banatzen duelarik: propioki grinatsua dena eta haserrekorra dena. Bi joera horiek eragiten dituzten objektuak, onak edo, besterik gabe, itxuraz onak dira baina zati haserrekorrari, bestean ez dagoen xehetasun bat gehitu behar zaio, hots, objektu eragilea eskuratzeko edo ekiditeko zailtasuna. Zati grinatsuari dagozkion pasioak honako hauek dira: maitasuna, gorrotoa, desioa, eramanezina, plazera, tristura. Zati haserrekorrari dagozkionak, berriz, itxaropena, etsipena, beldurra, ausardia, haserrea, baretasuna. Parekotasun bat egin daiteke, eta Gilek egiten du, pasioen eta objektu fisikoen artean: objektu batek, batez ere, astuna bada, erortzeko joera du eta erori ondoren, egonean geratzen da. Pasioen kasuan, maitasuna, adibidez, erortzeko joerarekin berdindu beharko genuke, desioa, berriz, joera horren praktikarekin, hots, erorketarekin eta plazera, erorketa edo desioaren ondoko atsedenarekin.

³¹ 1277. urtean Roberto Kilwardyk (dominikoa eta Oxfordeko irakaslea) Tomas Akinokoaren zenbait tesi gaitzetsi zituen Averroes eta Avicennaren eragina azaltzen zutelako susmoak eraginda.

³² Esan berri duena frogatzeko Boezioren esaldi hau aipatzen du: *quicquid cognoscitur, cognoscitur secundum modum cognoscentis* (*De Consolatione Philosophiae*, V, 4, 71).

³³ *Declaratum est igitur quid est passio quia est motus appetitus sensitivi quod ostendere volebamus* (Ed. 49^a).

Pasioak mugimendu kontzeptu fisikoarekin erlazionatzen dituen ideia horri egindako kontrako arrazoi batzuk ezeztatu eta gero, atal horri bukaera ematen dio pasioen sailkapena eginez. Esan bezala, hamabi pasio bereizten ditu autoreak, sei arimaren alderdi grinatsuari dagozkionak eta beste sei alderdi haserrekorrari dagozkionak, guztiak binaka antolatuta: maitasuna/gorrotoa; desioa/eramanezina; itxaropena/etsipena; ausardia/koldarkeria; haserrea/baretasuna; plazera/tristura.

Bukatzeko, pasio horien guztien ondorioez ere hitz egiten du Gilek.

Pasioei buruzko hausnarketa horretan, esan behar da, Aristotelesen doktrina ez ezik, Santo Tomas Akinokoak pasioei buruz egindako gogoeta gertutik jarraitzen duela Gilek.

5. Konklusioak

Laburki eta bukatzeko esan behar dugu, doktrina erretorikoari dagokionean, Gilek ez diola ezer askorik gehitzen Aristotelesek esandakoari: arte erretorikoaren estatusa definitzen eta etika nahiz politikarengandik bereizten saiatzen da. Nire ustean, bere iruzkinaren ondorioz, erretorika eta etikaren arteko ahaidetasuna erabat sendotuta gelditu zen. Alde batetik, Gilek adierazten du erretorikak darabiltzan baliabideak, dialektikarenak direla eta, azken finean, maila baxuko frogapenak garatzeko baino ez dutela balio eta, dialektika denez baliabidea horien iturri emailea, inplizituki erretorikaren gainetik dagoela ematen du aditzera. Pentsaera hori bera antzeman daiteke garaiko beste zenbait iruzkinetan ere, hala nola, Nicolaus Parisekoak Boeziorren obratxoari egindakoa eta Buridanek Aristotelesen *Erretorikari* buruz idatzitako *Quaestiones* delakoetan.

Bestalde, Aristotelesen doktrina etikoa eduki erretorikoekin zuzenki lotu gabe garatzen du Gil Erromakoak, gogoeta moral hutsa balitz bezala: pasioei buruzko atalaren iruzkina, Aristotelesen *Erretorikaren* bigarren libururekin alderatuz gero, bi aldiz luzeagoa da. Horrela, Gil Erromakoaren iruzkina erabakigarria izan zen erretorika eta etikaren arteko lotura sendotzeko. Ikusi besterik ez dago, J. J. Murphy³⁴ adierazten duen bezala, datu esanguratsu hau: *Erretorika* gorde diguten 96 eskuizkributatik, hamazazpik *Erretorika* soilik dakarte eta hirurogeita bederatzik *Erretorika*, Aristotelesen *Etika* eta *Politikarekin* batera. Kontuan izanik, eskuizkributan idatzita zeuden obren bilketek helburu funtzionala betetzen zutela ikasle eta irakurleen artean, pentsa daiteke Aristotelesen *Erretorika*, arte dialektikoaz edo

³⁴ Murphy, James J., «Aristotle's Rhetoric in the Middle Ages», *Quarterly Journal of Speech*, 52, 1966, 114-115.

diskurtsoaren teoriaz ari zen obra bat baino gehiago, filosofia moralaz ari zen obra kontsideratu zutela.

Idea berdina ondoriozta daiteke, gorago aipatu dugun Buridanek Aristotelesen *Erretorikari* buruz idatzi zituen *Quaestiones* deritzoten gogoetak kontuan hartuz. 1285tik 1289ra bitartean egindako iruzkin horren edukia- ren gehiengoa (edo, behintzat, iritsi zaizkigun bi eskuizkribuetako kapitu- luen gehiengoa), gai etiko eta psikologikoei buruzko eztabaida da. Horre- taz gain, honako bi gai hauek ere garrantzizkoak dira: dialektikaren eta erretorikaren arteko erlazioa eta zer motatako zientzia edo artea den erre- torika³⁵.

Lehenengo galderari erantzuteko, aurreko ataletan aipatu ditugun argu- dioak errepikatzen ditu Buridanek, azpimarratuz gutxiagotasun erlazio bat mantentzen duela erretorikak dialektikarekiko: lehenengoa zientzia moral- aren zati lagungarri bat da, arazo praktikoak erabakitzen laguntzeko baliaga- rria. Ezin da gai espekulatibo hutsak garatzeko erabili. Bigarrenez, erretori- kak ez dio adimenari soilik hots egiten, pertsuasio erretorikoa lortzeko adimen hari arimaren alderdi grinatsuarekin lotuta baitago. Hirugarrenez, erretorikaren baliabide formalak, dialektikarenak baino balio gutxiago dute perfektuak ez direlako. Azkenik, erretorikak hizkera emozionala erabiltzen irakasten du.

Beraz, Gil Erromakoaren eta Buridanen iruzkinak guztiz eraginkorrak izan ziren Aristotelesen *Erretorikari* Erdi Aroan eman zitzaion interpretazioa ulertu ahal izateko, hots, filosofia moralaz eta ez diskurtsoaren arteaz ari zen obra zelako iritzia ulertzeko.

6. Erreferentziak

ARISTOTELES LATINUS, ed. G. Lacombe, *Corpus Philosophorum Medii Aevi*, 2 bol., I Erroma, 1939; II, Cambridge, 1955.

ARISTOTELES LATINUS, XXXI 1-2, *Rhetorica*, Bernhardus Schneider ed., Leiden, E. J. Brill, 1978.

BOGGES, William F., «Hermannus Alemannus's rhetorical translations», *Viator*, 2, 1971, 227-250.

BRUNI, G., «De Differentia rhetoricae, ethicae et politicae», *New Scholasticism*, VI, 1932, 1-18.

DELHAYE, Ph., «La place des arts libéraux dans les programmes scolaires du XIII^e siècle», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du Quatrième Congrès International de Philosophie Médiévale*, Montréal-Paris, 1976, 161-173.

³⁵ K. M. Fredborg, «The logic of John Buridan», *op. cit.*, 55-59. Aipatu orrietan iruzkinaren paragrafo guztien aurkibidea eskaintzen digu autoreak eta erraz antzeman daiteke azpimarratu dugun gai moralen nagusigoa.

- FAKHRY, M., «The Liberal Arts in the Medieval Arabic Tradition from the Seventh to the Twelfth Centuries», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du Quatrième Congrès International de Philosophie Médiévale*, Montréal-Paris, 1976, 91-97.
- FREDBORG, K.M., «The Logic of John Buridan», *Acts of the third European Congress of medieval Philosophie*, Copenhagen, 1976, 47-59.
- GÓMEZ NOGALES, S., «Las artes liberales y la filosofía hispano-musulmana», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du Quatrième Congrès International de Philosophie Médiévale*, Montréal-Paris, 1976, 493-505.
- JOURDAIN, A., *Recherches critiques sur l'âge et l'origin des traductions latines d'Aristote et sur des commentaires Grecs ou Arabes employés par les docteurs scolastiques*, New York, 1960 (birrarg.).
- LEFF, Michael C., «The Material of the Art in the Latin Handbooks of the Fourth Century A.D.», *Rhetoric Revalued*, Brian Vickers ed., New York, 1982, 71-85.
- LOMBA FUENTES, J., «Sentido y alcance del catálogo de las ciencias de Al-Fârâbî», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du Quatrième Congrès International de Philosophie Médiévale*, Montréal-Paris, 1976, 509-516.
- MINNIS A. J., SCOTT A.B., WALLACE D., *Medieval Literary Theory and Criticism (1100-1375). The Commentary tradition*, Oxford, 1988.
- MURPHY, James J., «Aristotle's Rhetoric en the middle ages», *The Quarterly Journal of Speech*, LII, 2, 1966, 109-115.
- MURPHY, James J., «The Scholastic Condemnation of Rhetoric in the Commentary of Giles of Rome on the Rhetoric of Aristotle», *Arts Libéraux et Philosophie au moyen âge, Actes du Quatrième Congrès International de Philosophie Médiévale*, Montréal-Paris, 1976, 833-841.
- MURPHY, James J., *Rhetoric in the middle ages*, Berkeley-Los Angeles, 1974.
- O'DONNELL, J. R., «The commentary of Giles of Rome on the Rhetoric of Aristotle», *Essays in medieval history presented to Bertie Wilkinson*, T. A. Sandquist & R. M. Powicke (arg.), Toronto, 1969, 138-156.
- RASHDALL, Hastings, *The Universities of Europe in the middle ages*, 3 ale, 1936.
- ROBERT, S., «Rhetoric and Dialectic: According to the first Latin Commentary on the Rhetoric of Aristotle», *New Scholasticism*, XXXI, 1957, 484-498.
- WARD, J., *Ciceronian Rhetoric in Treatise, Scholion and Commentary*, Turnhout, 1995.